

## FÓNETICA HISTÓRICA VASCA

### Azentuera modernoa:

- Deskribapena:

Silaben arteko intentsitate, garaiera eta iraupenaren aldea oso txikia eta antzematen zaila. Hainbat euskal idazle eta Bonaparte berak ere gertaera esanguratsu batzuk ez dituzte azaleratu eta euskararen diakronia aztertu dutenek azentuari ez diote kasu handirik egin. “creían que no podía ser auténticamente vasco nada que se pareciera, de cerca o de lejos, al acento de las lenguas romances”. Latineko maileguak azterterakoan ez da oso agerikoa. Lafon: Zubererako azentuaren posizioak kontrakzio zaharren erakusle dira.

- Historiaurreko azentua = intentsitatezko azentua: printzipio sinesgaitza. Erdi-mendebaldeko dialekto bat ekialdeko batekin alderatzean desberdintasunak berehala ikusten dira:

- Gipuzkeraz hitzek esaldi barnean ez dute ia autonomiarik. No hay un acento claro que las individualice y las separe del contexto: etenak dira hitzak eta hitz taldeak banatzeko balio dutenak. Martinet: “prácticamente es la sílaba la única realidad fonética mayor que el fonema y menor que la frase”.

- Ekialdean: Erronk. hitz bakoitzak azentu bat du (birtuala behintzat) hitza indibidualizatzen duena. Erronk.-ko termino bati euskarazko baliokidea ematean, forma indeterminatua emango luke (artikurik gabea).

Ondorioa: honi dagokionez hizkuntza zaharra ekialde moderno tipotik gertuago zegoen.

- Hitzaren posizioaren arabera bilakaera desberdina hotsek: hitz hasieran, hitz barnean edota hitz amaieran izan.

- Elementu atonoak egoteak hitz guztiz azentudunak egotea dakar.

- Erdi-Mendeb.-eko azentu tipoak aztertzeak informazio ezberdina dakar Bizk. eta Gip., Lap., Goi Naf. zati bat eta Behe Naf. hizkera batzuen inguruan.

- Intentsitate eta garaiera(tonu) arteko aldeak oso txikiak dira: goranzkoa galde perpausen amaieran, aurreko silaben beheranzko tonuei jarraiki. Ahoskeran silaba guztiek antzeko pisua dute. Hitz isolatuetan (forma nominaletan lat. *sensu* nom. indefinido edo sing.), amaierako bokala besteak baino fuertagoa, altuagoa eta luzeagoa da, baina azentuaz baino gehiago artikulazioa errazteko ondorio da hau. Diferentzia txikia da batez ere bisilaboetan. Hiru silaba edo gehiagoko hitzetan, hasierako azentua ere badago lehenengo edo bigarrenaren gainean: *árriá*, *éuskerá*, *erábillí*, *begíratú*. Tonuari dagokionez ere alde txikiak. Azentuak batzuetan ohiko erabilerarekin alderatzeko balio du, hitzaren balio espresiboa nabarmentzeko: *gizóna* mirespenezko harridura; *útzí* 'deja(d)' eskakizun bat egiteko, *utzí* agindua.

- Altube: euskarazko hitz baten silaba bakoitza printzipioz bortitz eta azentuduna da; azentuaren posizioa zehaztu behar da sintagmetan eta perpausean. Konfigurazio foniko (silaba kopurua, inicial vocálica o consonántica) eta posizio sintaktiko berean dauden hitzek

azentua leku berean daramate. Bizkaiko zona batzuetan azentuak bereizten du erakusleetan sg. eta pl.: *onék* sg./*ónek* pl. eta baita izen batzuetan ere: *gízonák* sg./ *gízonàk* pl. erdi-mendebalde osoan gertatzen da hau, ez bizkaieran bakarrik.

- Larramendi: bere behaketa terminologia klasikoan egina, baina bistakoa da konparazio hitzaren atzean erdarazko azentua zebilkiela, hau da, latinetik datorren erdararen ahoskera. Adierazten dituen aldeak azentuaren posizioari dagozkio, bere arabera eusk. azentua ez dago hitzaren azken hiru silabetara mugatua. Azentua azken silaban darama. Salbuespenak: *-tzalle*, *-le*, *-ago*, *-en*... amaitzen diren hitz eratorriak; azken aurreko silabak darama azentua.

Hitz eratorri hauen azentua ez da posizioz aldatzen edozein delarik atzizkiaren luzera. Pluralean, deklinatzen den izena tema nominalaren azken silaban azentuatzen da beti: *gizónak*, *gizónena*, *gizóntzat*, *gizónai*. Aldiz, atzizkia atonua denean azentua ez doa azken silaban; izan ere, monosilaboa edo bisilaboaren kasuan lehen silaban eramango du. Lekuzko izenek eta pertsona izenek azentu askea dute.

- Aditz burutuan lehen silaba azentua daramana: *dáukat*, *zéndukazun*... aurreko hitz bati lotuta doazenean (aditz izena, izen edo izenordaina, partikula), hizketa azkarrean gertatzen dena, azentua lehen edo bigarren silaban: *egíten dítut*, baina *jan duzú*, *egin ditút*; *neronék dítut*, *gizónak géra*, baina *badegú*, *eztegú*, *ik didák*, *ni nintzán*.

- Euskal testu gehienetan ez bada azentua adierazi, hau bere balio funtzional eskasari eta nabaritzeko zailtasun nahiz intentsitate eta garaieraren arteko aldea definitzeko zailtasunaren ondorio da.

- Zaldibia: izen guztiak (salbuespena: izen berezi batzuk), sg.: *-a* eta pl.: *-ac*-en amaitzen dira (deklinatu gabe); kasua bereizteko azentua batzuetan azken aurreko silaban eta beste batzuetan amaierakoan.

- Orokorrean izenak nominatibo sg. eta azentua azken aurreko silaban: *améa*, *echéa*, *cerúa*, *uría*, *alauéa*, salbuespenak: *ederrá*, *gorpufá*, *alcandórea*... Ez dakigu zein izango zen "temas nudos"-en azentuazioa, numeralak oxitonoak dira (*irú*, *oguéy* eta euren eratorriak), berdin aditz forma pertsonaletan: *bacúst*, *edantendót*, *laster eguitendót*, baina *iracúrtendot*.

Nahiz eta informazio horien jatorria ez jakin, mendebaldeko dialekto bat izan behar du, Bizkaia edo Arabakoa seguruenik.

- Goi-nafarrera (Irun, Hondarribia, Bortziriak) azentuari dagokionez oso desberdina Gipuzkoa edo Lapurdin hitz egiten den euskaratik. Azkueren arabera azentuak barietate hori du; «la misma intensidad que en español»: difiere, sin embargo, de éste porque no conoce restricción en cuanto a la posición en la palabra.

- Holmer: azentua "tema nominal"aren bigarren silaban doa normalean. Hau monosilaboa bada azentuarekin joango da.

Azkue: Hondarribian *ú-ra* erátekua da, *u-rá* 'aquél'. Bokal azentudunaren luzapena zona honetako ezaugarria da, ahultasunarekin eta azentuaren ondoko galerarekin dago lotua. Adibidez: *Ondtí·rbi* < *Ondarrabi* (ant. Ondarribi), bere aldaera *Onddá·rbi* da; Beinza-Labaienen *abisatu*>*abístu*; Ulzaman *ikusi duzu*>*kus duzu*, *oberena*>*obrena*...

- Zuberera: azentuak ezaugarri bereizgarriak ditu; gaztelerako erromantzeetatik gertu dago.

### Azentuera Zaharra:

- HIPOTESIA:

- Intentsitate automatikodun azentua: desadostasuna azentuaren posizioaren inguruan dago.

- Martinet: Hitz hasierako herskariaren ahostuntzea: lat. *ahoskabe* > eusk. *ahostun*. Herskari bortitzak. Honek bultzatu zuen pentsatzera herskari bortitzak hasperendun egitea bokal azentudunaren aurrean, latineko lehen maileguekin galdu da euskararen eta horren ondorioz, euskara zaharrak lehenengo silaban azentu demarkatiboa zuela pentsatzea. Euskaraz latineko lehen maileguen ondoren galdu da; euskara zaharrak lehen silaban azentu demarkatiboa izatearen ondorio da.

- Dialekto euskal-frantsesek /h/ fonema dute eta herskari hasperendun ahoskabeak. Hasperena ez da hitz barruan edozein silabaren barruan agertzen: hitz hasieran edo bigarren silabaren hasieran agertzen da. Hitza hiru silabakoa denean ez da leku horretan agertzen. Honen azalpena: azentua azkeneko silabatik azken aurrekora igaro zenean, gales zaharreko h-ak erori egin ziren, bokal azentudun berri baten aurrean aurkitzen ziren. Euskaraz; bigarren silaban azentua.

- Maileguetan: posizio batzuetan herskari hasperendunak daude; latin eta dialekto erromanikoetan herskari puruak. Maileguetan, posizio batzuetan herskari hasperendunak daude lat. eta dialekto erromanik. herskari puruak zituzten posizioetan.

- Martinet: Hasperena hitz hasieran gertatzen da eta herskari ahoskabe batez hasten bada hitza, herskari hori hasperenduna izan daiteke (Zub. *phika* 'urraça'...), horrek eragozten du beste hasperenketa bat (bi hasperenketa) egotea hitz berean.

- Euskara aztertuz: hasperena bokal azentudunaren aurrean mantendu edo gorde da; hau da, bigarren silaban:

- *jakin*: ez du hasperenketarik. Bere jatorrizko forma \**e-aki-n* da. Lehenik \**éakin*, la transferencia del acento a la vocal más abierta tuvo que ser por fuerza muy antigua. *Iakin*-en hasperenketarik eza: bokal azentudunaren aurretik ematen delako hasperena. Analogia kasua: *jauki* eta *jaiki*. Diptongoa bigarren mailakoa izan liteke eta kontrakzioaren emaitza.

- Mailegu bisilabiko askok ez dute hitz barneko herskaria hasperenduna: *bake*. Mailegu batzuek, hizkuntzaz aldatzean, latineko posizio berean mantendu zuten azentua. Gauza bera gertatzen da tema nominaletan bi silaba baino gehiago dituztenetan: *lucuru* baina *bothere*.

- Azentuaren posizioaren eragina: azentua bigarren silaban erortzen bazen estaba en las voces del segundo grupo; lat. eta Zub. modernoan leku berean: *aita*, *aiphatu*. Honekin inicialak noizbait hasperena mantendu duela ondorioztatzen da, baita azenturik ez zeramanean ere.

- Erronk. eta Zub.: Normalean hitz elkartuetako azken elementu edo hitzaren lehen silaba da azentuatzen dena. Hauetan, kontrakzioa dela eta monosilaboa izan ohi da azken elementua. Hitz elkartu zaharretan: bokal itxiak (i,u) erori egiten dira azken posizioan, eta bi silabadunetan *e, o, u > a* neutralizazioa gertatu da. Orokorrean bokal artean hasperena mantentzen da.

- Hitz elkartuen azken hitzean kontuak bestelakoak dira:

- La pérdida detrás de consonante de la vocal final conseryada en la palabra independiente: *luze* (Zub. *lüze*). Ziurrenik bokal bat erori edo galdu da *-il*-en hilabete izenetan: *\*(h)ile, \*(h)iLe > otsail, urt(h)arril*; hitz elkartua: *hilebethe; illhabethe, hilabete*.

- La contracción en una sílaba de vocales iguales o diferentes tras la caída de h o de otra consonante intermedia: *behe* 'parte inferior' : *-be, -pe* en numerosos compuestos (en 1053 todavía Olabe(h)e r;ahar en Elorrio, Vizcaya), de donde *pe*, hitz autonomoa/independentea Erronk. eta Zub.-an. *\*bene* 'delgado' > *mehe*, Zub. *mehe*.

Eboluzio dibergentearen ondorioz, hitz autonomoa eta hitz eratorriko azken elementua urrundu egin dira eta ondorioz euren identitate originala ia ez da ezagutzen: *ohi* ( *\*kohí, -(k)oi, \*-kóhi > ohi*).

- Hasperena eta azentuaren posizioaren arteko erlazio zaharra: h etimologikoa bokal artean, hasperena bokal arteko “n”-tik datorrenean da. Zub. *báhe* 'criba'(< *\*hane* < errom. *van*); *orga*<*\*organa*. Dialekto guztietan komuna zen morfemaren forma zaharra, ia eratorriko azken elementuan soilik existitzen da. *-záñ*: Erronk. *-zái*, Bizk. *-zar* ( < ant. *-zai*)... 'guardián, custodio', *\*zani* da. Zub.-an *\*zahi* esperoko genuke.

- Eratorrien azken elementuetatik nibelazio analogikoak azal ditzake bokal erorketak: *beltz/baltz*.

- Erronk. eta Zub., hitz elkartuaren bigarren elementuaren lehen silabak darama azentua, hemendik oxitono asko, bigarren elementu hori silabatzat hartzen da. Ezaugarri arkaikoa dela pentsa liteke, garai batean dialekto guztien ezaugarria, baina hipotesi honek eragozpen asko izan ditu. Salbuespenak: *besápe* adibidez. *harri* 'piedra', de ser antigua la acentuación sobre la inicial del segundo miembro, se esperaría *\*muga-hárri* eta *\*zedahárri*: Behe-Naf., Lap. eta Zub. ez zuen zertan desagertu *ahal, ahari*...-en mantendu den hasperena.

- Lehen elementua monosilaboa duten hitz elkartuetan, hasperena bigarren elementuaren lehen bokalaren aurrean ohikoa: *uh-*, *zuh-*, *luh-*; Zub. *üih-*, *lüh-*. *-pe, -tasun* atzizkiek herskari hasperenduna morfema monosilabiko baten ondoren agertzen dela erakusten dute. Lehen elementua silaba batera murriztua geratu denean kontrakzioaren eraginez, hasperena agertuko da. Bigarren elementuak hasperena galtzen du.

- Hitz elkartu zaharretan hasperenaren banaketak ez du ondo funtzionatzen bigarren elementuaren hasieran doan azentuarekin Erronk. eta Zub.; - (h) ´ - - eskatzen baitu eta ez - - ´ - .

- Zub. *h* dauka bigarren eta hirugarren silaben artean, hitz eratorri eta elkartuetan: *a(r)akhói* "carnívoro", *bo(r)ontháte...*

- Akitaniera: azentua bigarren elementuaren hasieran edo izen arrunt bezala, agian jatorri ez euskarianoarekin, eta azentua bigarren silaban duelarik. Azentuazio hau litzateke *Aherbelste* azalduko lukeena euskarazko *ak(h)er*-ekin alderatu behar dela pentsatzen bada.

- Hasperenketa eta azentua, edo hasperenaren faltaren arteko lotura zaharraz dihardugunean, lotura hori azentuaren ahultasuna edo gabeziaren adierazle izango da. hau aplikatu dakiekegu *eta*, *ala* partikulei eta aditz mugatuei (laguntzaileen formei bai behintzat).

-h ez da ematen el tema nominal eta atzizkiaren artean, ezta hauen barnean edota deklinabidean erroaren atzetik eta pertsona marken atzetik, bi kasuetan atzizkiaren lehen bokalak aurretiko lekuko bokal batekin duen loturatik egokitzapen fenomenoak ditugu. Kasu hauetan azentua batzuetan deklinazio atzizkira pasatzen da azentua Erronk. eta Zub.: *gízon/gizonék*, *gízun / gizonék...* Azentua teman mantentzea esperoko litzateke errom. bezala: *doamnti < domna*; *doamna < domna-lla*. Hau da erdialdeko eta mendebaldeko dialektoetan gertatu dena, pluraleko atzizkiak beti atonoak dira. Lafonek hori adierazten du Schuhardtek argitaratutako lapurterazko testuen aurka, testu horietan pl. atzizkiak (aktiboak) azenturik gabe agertzen dira.

- Erdialde eta mendebaldeko dialektoek arkaikotasun handiagoa dute ekialdekoek baino.

- Aginteran, esaldiaren hasieran agertzen da eta azentuduna izateko joera dauka, amaierako bokala galtzen den adibiderik bada.

- Ohikoa bi formak oinarri bisilabiko zahar bakar batean biltzea, *\*eze*, azentua hasieran zeraman indikatiboko forma bat zuenean ondotik (en enclisis) (*\*éz(e)-doa > eztoa*) eta aginterazko forma azentudun baten aurrean (proclítica): *febez* 'no diga' < (*e*) *ze-bésa*, *e-sa-n*.

- Euskaldunek azentua erregulatzen ikasi zuten; silabak aurretik atzera zenbatzea ahazten zihoazen heinean. Horren ondorioz, azentuak azken silabarekin lotura. Hitz hasieratik hasten bagara silabak zenbatzen, dena erregularra da orain arte ikusi dugunarekin: *akhér* azentua bigarren silaban *ithún-i-k* edo *bekhátu-k* bezala. Baina amaieratik hasi ezkeren izen bisilabikoak oxitonoak dira eta azken silaban azentuatzen dira, hiru silaba dituztenak paroxitonoak dira eta azentua azken aurreko silabak darama.

- Hasperena falta mailegu bisilabikoetan: *bake*, *mutu*, *neke* azentua gorde zuten, euskarara pasatzean, posizio originalean. Eredu latino-erromanikoan azentua hitzaren amaieratik kontaktzen zen.

- Azentuaren lekualdatzea bokal arteko *\*n* erortzearen ondoren, berantiarra da. Esate baterako *sehi* baina *arno*.



# LARRAMENDIREN HIZTEGIGINTZAREN INGURUAN

(Lakarra 1985)

Lakarrak Larramendiren hizkuntzazko idazkiak irakurketa berri eta zuzenagoen premian daudela dio, Azkue eta Aranaz geroztik mespretxu eta gutxiespenean jarraitu baitute.

## Larramendi eta apologistak

Larramendiri buruz idatzi duten gehienek, Axular eta Etxeberriren zuhurtzia eta praktikotasuna goraiatu ondoren, *apologistatzat* jo izan dute. Lakarrak, ordea, hori baino zerbait gehixeago izan zela dio. Gainera, apologisten artean ere bereizkuntza bat egin beharra dagoela azpimarratzen du; ezin dira talde berean sartu Garibai eta Poza, Erro eta Etxeberri, Larramendi eta Astarloa. Hauen arteko aldeak handiegiak dira, ez soilik taktikan (erabiltzen dituzten mito eta topoietan) baita estrategian ere (lortu nahi dituzten helburuetan).

## Apologiak zertarako?

Garai hartan apologiak ezinbestekoak ziren; beren hizkuntza, hemen euskara zena, besteak bezain on, aberats eta konplituia zela erakusten zuten modu honetan, edota besteak bezain noble eta zahar, Babel osteak sortua eta lehenago Espainia osoan mintzatua.

Gramatika eta Hiztegiaren hitzaurreetan garbi asko uzten du Larramendik euskara *goren gradora* igo nahi izan zuela; batetik, kanpokoentzat apologien bitartez eta bestetik, etxeakoentzat ere, landuaz eta egokituaz.

Gainera, apologistek *apologista huts* diren neurrian ez dute hiztegirik egin ohi, Etxeberri eta Larramendiren kontrako. Bai Etxeberri eta bai Larramendik, ordea, beharrezko dituzte apologiak; gramatika bat edotan hiztegi bat gauza serioegia zen oraindik zeinnehai hizkuntzari buruz egiteko; merezi egin behar zuen hizkuntza horrek eta soilik hori egin ondoren joan zitekeen praktikara eta gramatika edo hiztegia argitaratu edo argitaratzen saiatu.

## Hitzberriak

Larramendi berak aitortzen eta aldarrikatzen du hitz teknikoak deituko genituzkeen horiek guztiak asmatu zituela eta baita hizkera arrunteko beste bi edo hiru ere. Hitzberriak sortzeko ahalmena hizkuntzaren askatasuna lortzeko eta morrointza apurtzeko beharrezkotzat zituen.

Ez da zilegi bitxitasun eta xelebretasun hori gogoz bilatu zituela pentsatzea. Dugun irudia tarteko 240 urteen poderioz eman diren gertakariak taiutua da; bere neologismook orduan onartu eta hedatzen baziren, Larramendi ez litzaiguke barregarria baino zuhur eta aurreratua irudituko.

Hiztegiaren inolako euskalki bereiztasunik gabe, bildu ahal izan dituen euskarazko hitz guztiak bildu zituen, Euskal Herri guztietara zabal litezen eta denetan ezagut. Hauen ondoren erderatiko mailegu bertakotuak sartzen ditu eta azkenik soilik zientzia eta tekniketarako berbak asmatzen. Hauek, bai, guztiak asmatzen ditu, euskara gai horietan oraindik saiatu eta trebatu gabe baitzegoen.

### Hitzberriak eta kultur edukinak

Liburuak luzatuaz eta gaiak ugarituaz joan ziren pixkanaka eta lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren; horiekin batera gauzok deitzeko berben beharra sortzen zen. Arrazoi horrengatik Lore Jokoetan eta Donostiako Teatro belaunaldian mendearen bukaerarantz hitzberriak aurkitu ahalko dira.

### Larramendi eta euskal tradizioa

Askotan aipatu izan da Iparra eta Hegoaren arteko muga, hauen arteko harreman falta eta bakoitzaren izaera ezberdina. Egia da hartuemanak ez direla askok nahiko genituzkeen bezain bortitzak baina ikerketek aurrera egin ahala hauek nabarmentzen doaz.

Larramendik berak Bizkaiko eta Nafarroako zenbait liburuxkaren alboan Leizarraga, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harriet, Xurio, Etxeberri Sarako eta besteren aipamenak dakartza hiztegiak ematen duen aurreko euskal literaturaren zerrendan.

Beharbada hartuemanak ez dira gehiegi izan baina bai adierazgarriak. Honen arrazoiak ez dira zailak antzematen: herrixka edo bailara bateko dotrina labur bat, askotan enkarguz, idatzi behar zuenak ez zuen gainerako idazleek beste lurraldetan zer egin zuten ikasi beharrik.



### Larramendi eta gerokoak neologismoei buruz

Larramendi eta bere jarraitzaileek eta Sabino Aranaren oso iritzi eta jokamolde ezberdinak dituzte, kontrakoak izateraino. Larramenditarrek halaberrez sortzen dituzte berba berriak, ez erdaratiko euskal hitzen ordekozat baina bai erdal hitz ordaingabeak itzuli ahal izateko.

### Maileguez

Sabindarrekin dituen ezberdintasunak ez dira soilik hitzberrietara mugatzen. Hona hemen Mitxelenaen hitzak (garbizaletasuna du Larramendik bere hitzetan eta ez garbizalekeria):

*Nekerik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen Larramendik euskarari, euskal idatziari buruz. Euskarak burua josko bazuen... premiazkoa iruditzen zitzaion ... artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa.*

Gutziz onartzen ditu beste hizkuntzetan bezala gauza berri edotan kanpotik etorriei dagozkienak, hots, beren euskal ordaina izan arren jadanik hura baino hedatuago egta ezagunago direnak. Kanpoan uzten ditu aldiz, sermolari txarren eta elebidun baino euskaldun gaizotago ziren mihietan entzun ohi ziren erdarakadak.

### Hitzak, gramatika eta literatur euskalkiak

Larramendi delako hitz baten edo bestearen erabileraz arduratzen zena bezain beste edo gehiago arduratzen zen gramatikaren erabileraz. *El Imposible Vencido. Arte de la lengua Bascongada* izeneko bere lanetik edan zuten mende hartako idazle gehienek.

Lakarrak esango luke bere euskal lanak ez direla behar bezala ulertuak izan biak batera, gramatika eta hiztegia, aztertu ez direlako. Biak elkarren osagarri dira.

Euskal literatura zaharraren produkzio kopuruaren taulari erreparatuz (44.orrian) adierazgarria da Larramendik gramatika eta hiztegia argitara eman ondoren ematen den jauzi nabarmena.

- Gipuzkera 7 liburutik 23ra igaro → hazkunde horren poderioz gipuzkera hegoaldeko literatur euskalkia bilakatu zen, iparraldekoa lapurtera zen bezala.
- Oso azkar gertatu zen hau; 1745 baino lehen Otxoa (1713) eta Irazustaren (1737) doktrina soilik ditugu eta 50 urtetan gauzak asko aldatzen dira. Ez du masa kritikoa soilik posibleztatzen, baita masa horren kalitatea, hizkuntza kalitatea, ere.

- Bigarren mailako idazleengan ere eragina → garbitasun nahia antzeman daiteke

### Bukatzeko

Aurreko orriotan Larramendiren lexikografia lanari lotutako zenbait puntu aztertu dira, horien irakurketa orokor eta apropos bat egiten saiatuz.

Euskal literaturaren eta euskal lexikografiaren bultzagile eta ardatz izan zela dio eta bere obraren garrantzia goregi jartzeko arrisku gutxi daudela.

Bere ezagutza sakonagoa ezinbestekoa da sail horiek argitzen saiatzen diren filologo eta hizkuntza historialarientzat, Larramendirengandik oraindik ere zerbait ikasten jarrai dezakegu eta.

## LAS ANTIGUAS CONSONANTES VASCAS

- 1- Datu Ezkorrak dira euskararen datuak kontutan hartzen baditugu, izan ere euskalkien dibertsifikazioak ez digu laguntzen.
- 2- Euskalkien zatiketa, estatuaren banaketa politikoak eta kultura bateratzaile bat ez edukitzeak, eragin handia hizkuntzetan. Gainera garrantzitsua latinaren eta hizkuntza erromantzeen eragina. Inguruko hizkuntzen bezala, euskarak ere elebitasunaren eraginez inguruko hizkuntzen eragina izan du eta hori lexikoan islatu. Mailegu hauek euskararen sistema fonologikoan eragin.
- 3- Hots euskaldunak eragin handia izan dute NEUTRALIZAZIOAN: hasieran eta amaieran hotsak neutralizatu (ahostun/ahoskabe, frikari/afrikatu...) baina bokal artean bereizi. Zaila da ordea jakitea, euskarazko frikaria oraingoa eta lehengoa berdinak ote diren jakitea. Zeru → z afrikatua baina gaur egun berdina zalantza.
- 4- Historia ez da XVI.mendean hasten Mailletek uste zuen bezala. Gutxienez XI.mendeko materialak ditugu hotsen historian.  
2 material: akitaniakoak eta iberikoak. Martinet → “euskaro” deitu vasco-aquitanoari.  
Eragina lexikoan eta fonologian
- 5- PALATALAK: indartsu/ahula → ahula desagertu eta indartsua ezarri orokorrean. Salbuespena zori “txori” bezala ez da gorde. Gaur egun bigun/gogor (xexen/zezen) gradu ezberdina erakutsi dialektoaren arabera. Lehen erabiltzen zen kontrastea garbiagoa eta sistematikoagoa.
- 6- Kontutan hartu soilik aintzin euskaran eta Erdi Aroan: p,t,k,b,d,g; ts,tz,s,z; m.n.l.r.rr eta hasperena. Herskaria zenbait posiziotan → espirante bezala, gazteleraz bezala, altzernantziak gertatu, disimilazioagatik. Nafarroan: XI-XII.mendean: Muruarren, Murugarren (de-barren) p → gutxitan bokal artean: ipar, d./t- hasieran gutxi.
- 7- Herskarietako p/b bereizketak ez du garrantzirik hitzak ezberdintzeko, ez ahoskabe hasperendunak eta gabeak. Ahostun bihurtu erromar garaian. Apaiz/ aèz/aphatia.

- 8- F → fornema bezala ez hots bezala. Baina esaten denaren aurka 1) euskaldunek f aspaldiko garaietatik erabili eta 2) f grafia Erdi Aroko dokumentuetan agertu, ez soilik maileguetan, XVI eta XVII. Mendeko testuetan. F era, como hoy, un sonido análogo a la fricativa labiodental de las lenguas vecinas y no una f bilabial. F, p-ren aldaeratzat hartu izan da, baina ez beti, harremana b: (h)abia, kabia, afia (>api).
- 9- Inoiz ez ziren geminatu bihurtzen: b,d eta g. Desberdintasunak Akitaniarra eta euskara. Euskaraz d- oso gutxi, Akitanieraz asko, eragin indoeuropearra. Komunean, euskarak, akitaniarrak eta iberokoak, p gutxi eta arraroa. Bestalde euskaraz gizon ahoskabe eta akitanieraz cison.
- 10- TXISTUKARIAK (alde batera utziz x eta tx) Dialekto guztietan z/tz eta s/ts bereizketa. Beraien ustez hitz berebean bi txistukariak bereizteko, artikulazio ezberdina dutenean: sasoi(n)< sazón. Akitanian x eta xs bezala idatzi afrikatuak, baina bereizi egiten zituen. Iberikoak ere bereizi.
- 11- FRIKARI/AFRIKATU: hasieran, espirante bezala, amaieran afrikatua. Zebaitetan hitzetan ordea maileguak bortz<lat. Fortis, gorputz<lat. Corpus. Hasieran s/z. Zenbait dialetotan ts/tz baina hauek hitz adierazkorretan soilik. Erronkari eta Zuberoan kenduta sudurkari eta l ostean neutralizatu. Zenbait tokitan -rtz- rz egin eta rz ekialdeko muturrean izan ezik beste lekuetan -s-/urzo/uso, -tazun/tasun.
- 12- Iberikoan topatu ditugun 2 txistukariak bereizten dute ez modua edo artikulazio. Hu da ez dituzte fortes/lenes bereizten.
- 13- DARDARKARIAK: Euskarak r/rr bereizten ditu. Hori lur hispankoan ere bereizten zen. 2 soinu bereizteko helburua. Bikoiztasun bat hitz barnean, ere/erre, ero/erro. Zuberoan, aintzin bereizketa bat, u zegoenean r+ hrskari apikari bat, úrde cerdo, úrthe año, baino ü bihurtu ondoren. Hasieran r ezta R ez da existitzen ez bada maileguetan -r- xuabe bat topatu amaieran baina gaur egun ez ahoskatu (h)aur este, (h)irur 3, laur4. Gaur egun ur(ura) eta ur (avellana) berdin ahoskatu eta idatzi, lehen zenbaitetan -rr topatu

- 14- SUDURKARIAK ETA ALBOKARIAK: XVI. mendean gutxi gorabehera gaur bezala, m,n,ñ eta l,ll. Baina -n- landu: mailegu latino-romanicos bokal arteko n galdu euskaraz. Adb: gaztae (biz), gazta (a-n ñ-aren txapelakin Erronkari),gazna (Zub.) nn>-n- bezala gorde -n- bokal artean galdi sehi, baina N, gorde egin da -n- bezala anaia (gaskoian eta gallego portugesean bezala)
- 15- ,l bokal artean → r. latineko ll berriz l: gaztelu castillo, angel aingeru, cielo zero. Baina gaur egun l ohikoagoa bokal artean n beharrean: al(h)aba, bele, alu...ondorioz \*L fonema, latineko ll bezala
- 16- N eta l gaurkoak bokal artean talde zaharrak jarraitzen dituzte eta talde naturalenak: nd eta ld gorde orokorrean baina Erronkari eta Zuberoan, ez dituzte ahostundu herskariak sudurkari ostean eta l, desberdindu aldi deenbora vez, alte Zuberoan álthe alde. Nd modernoa andere, andre. Akitanoko l, euskaraz \*L. Hau da, Akitaniarrak, txikitu egingu du idazteko era, ll (o L) → l. Euskaraz baliteke /L/ ld taldearen emaitza izatea, baina talde hori hain izango da zaharra guri ez digula mugarik jarriko. Hots hauek kontsonante geminatutzat hartu beharko genituzke /nn/ eta /ll/ ez fonemak bezala. Akitanieran eta Erdi Aroan fonema fortesen eta lenesen oposizioa /R/ a /r/ baina euskaraz eta erderaz ez dago oposizio ahul eta geminatua.
- 17- Akitanieraz ll → illai, Bellaisi bai eta askoz gehiago nn taldean → bonno, Ennebox... baina zenbait izanetan l eta ll erabili, orduan uler daiteke akitanieraz ez zutela idazteko modua zaintzen. .nn → erregela da, rr bezala -tar® atzizkian. N eta l ez dira galdu, r bilakatu dira arikuluaren aurretik edo kausazkoaren kasuan bokalez hastean eta bokal artean agertzean n/l → r. ondorioz uler daiteke n eta l N eta L bezala egin. ,l ordea euskaraz ez da arraroa, baina akitanieraz l-rik ez, baina Erdi Aroko grafietan ll aurkitu Zabal > Zaballa. Geminatu hau ez zen grafia hutsa, erromanizazio goiztiarra eta ll bilakaera lat. Ll ekarri eta gaztelarrako ll palatala.
- 18- Haiserako l eta n, baliteke posizio horretan orokortu izana forma ahulak ere, bokal artean r/h izango liriateke. Baina sudurkaria erori egin zela izan ere hasieran dardarkaririk ez. Forma indartuak gailendu badira ere, l-ren kasuan ahula. , l-/n-

altzernantiza hasieran:la(h)ar/naar (edo agar “arriba”) lapur/napur, lasai/nasai. Hitz horietako askotan R topatu baina hori hitz barruko disimilazio bat. Baina ez da \*r-baten disimilazioa, izan ere ez zen existitzen dardarkaria, l ren lenizio bat.

19- Fortes (p) t tz-ts k N L R

Lenes b d z-s g n l r

Eta gainera /h/a. Baina /m/ren kasuan, arazoak ditugu, hasierako lekuan maileguetan, euskarazko m- txandaketa bat b-,p- eta baita f-rekin ere. Asimilazio sudurkarietan → vengada: mendeku.,p eta b korrelatu indartsu bezala m-rena. Atzizkietan -pen/ -men/-ben: nabarben., m/b altzernantziak: m bokal artean 1) -nb- dugunean -m- eta 2) u bokalaren ostean, u-k sudurkaritu b. iberikoan m denbora gutxian, /b/ren bariante bat. Ondorioz berdina pentsa genezake euskaraz eta akitanieraz. Euskaraz/Erderaz m/n oposaketak soilik bereizi posizioaren arabera.

20- Hipoteesia euskara eta kaukasoko hizkuntzak familia linguistiko beraren kide direla onartuko dute soinu sistema eta formak ikusiz.

Mitxelena (1974). *El elemento latino-románico en la lengua vasca*

- *h-z* idazten dira dialektuetan hasperena dutenak eta garai modernoan hasperena izaten jarraitzen dutenak: laburtzeko eta lekua irabazteko; sinpleagoa delarik *hamar* idaztea *amar*, *hamar* edo (*h*)*amar* idaztea baino. Hasperena dokumentatua dagoen aldiro agertzen da dagoen lekuan dagoela; hau horrela, herskariaren hasperena ere markatzen da: *bikhe*, *gerthu*.

1. Baskonia historikoa ez da inoiz erabat erromanizatua izan, hitzaren zentzu linguistikoan:

- Bi guneko urbano nagusi: Nafarroako eta Arabako Iruña-k eta Lapurdi iparraldean.

- III. mendetik aurrera, ordena erromatarra desagitzen hasi: erromatar inperioa nekazal gunetara zabaldu batez ere mendebaldean euskarak bere tokia hartu eta mendebalde eta hegoaldera hedatu.

- Erromanizazioa ez zen guztiz gauzatu baina latinarekin eta ondoren etorri ziren hizkuntza erromanikoekin kontaktu zuzena izan zuen. Ondorioz: euskarak latin-erromaniko jatorriko hitzak izatea.

- Maileguak: jatorriko forma antzekoen mantentzen duena eta aldaketa fonetikorik erakusten ez duena zaharragoa.

2. *Baskische Kultur im Spiegel des lateinischen Lehnwortes* (G. Rohlfs): maileguen bilakaera fonetikoko gertaerak finkatu; bi irizpide mailegutzat hartzeko: 1- lehen begiratuan mailegu itxura duena 2- hizkuntzaren ondarea jarraitzen dutenak (indize eta ahots gramatikala).

- Euskarazko formak: forma zaharrenetan edo esanguratsuenetan agertzen dira; aldaerak konparaketarako beharrezko direnean. /h/ euskalki guztietan ematen zen, horrek ez du azaltzen *h* moderno guztiek azalpen etimologikorik dutenik.

3. Euskara zahararen sistema fonologikoa latin klasikoarena baino askoz sinpleagoa zen: unitate gutxiago eta euren arteko konbinaketa aukera mugatuagoa.

- Oposizio bereizgarriak direnak jatorrizko hizkuntzan, galdu egiten dira hizkuntza hartzailean.

- Bokalismoa: Euskara Zaharrean 5 bokal eta 3 irekiera gradu; Zuberoan: seigarren bokal bat /ü/ (\*u batetik eratorria); ü: euskarri onena u zaharra berreraikitzeke. Latineko *i*, *u* *ĩ*, *ũ*-rekin nahastea eragin.

4. Mailegu berrietan, erromaniko bilakaeraren eraginez, euskarazko *e*, *o* latinezko *i*, *u* laburrengatik ordezkatuak: *balezta*, *beta*, *mendekatu*, *mezu*... euskal hotsetarako testuingurua kontuan izan behar da. *i*-ren antzintasuna ez da ziurra *gisu* ekialdean/*pisu* mendeb.

5. Ekialdeko dialektoak:  $i - u (\ddot{u}) > u - u (\ddot{u} - \ddot{u})$  bokalen asimilazioa ohikoa: *aingiru*, *aingeru* < *ainguru* (Erronkari), *aingürü* (Zub.); *gatulu*, *gathülü*, *katillu* < *catillu*. Ezin azaldu *dekuma*, *tekuma* (Erronk., Salazar) 'diezmo' latin arkaikoko bokalismoa (*decuma*) gordetzen duen edo *u* horrek garapen sekundarioa izan duen, euskaraz, *decima* hitzeko bokal atonoarena.
6. *au* diptongoa:
- Orokorrean berdin mantendu da; *allauda* "alondra", *lauza* "losa".
  - Erronkari eta Salazarren: *au* > *ai*; *gauza* > *gaiza*; baina *nausa* < *nausia*
  - *au* > *ai*, *a*: hurrengo silaban *u* egoteak baldintzatua; *haizu*, *hauzu* < *ausu*; *kaiku* < *caucu*; *mairu*. *au* > *a*: *auditu* > *adi*.
7. Latineko *ae* eta *oe* erakusten duten lekukotasun zahar seguruak falta dira: *theiü* "sucio, impuro" < *taediu* berria dela dirudi.
- Diptongo erromanikoak *ai*, *ei* mantendu lege orokorraz: *Peitu* < *defectu*; *deithu* < *\*deito* < *dictu*.
  - Maileguetan ohikoa *ei* > *i* murriztapena: *eliza* < *eleiza*; *zitu* "cosecha" < *\*seito* < *sectu*.
  - Txistukari sabaikaritu baten eraginez *i* galtzea ohikoa: *elixa* < *eleiza*. Dialektoen arabera *leinu/leñu*, *oilolo*, *teila/tella*.
8. Hitz amaierako bokalak:
- Euskara Zaharrak edozein bokalez amaituriko hitzak: *aita*, *bare*, *begi*, *beso*, *buru*
  - Maileguren egokitzapenerako arazorik ez.
  - Lat. *o*, *u* > eusk. *-u* eta *-o*. "-u"-z amaiturikoak antzinatasun seinale; *biku* zaharragoa *fiko* edo *iko* baino. Baina *ollo* 'gallina' - *bil(h)o* 'pelo' baino zaharragoa dela dirudi. Zalantzaszko kasu ugari: *abendo* / *-u*, *bertsol-u*, *jokol-u*.
  - *-u*, *-o*-ren gabezia: *ausat izan* 'atreverse', *polit*. Ohikoa: *-u* ez topatzea *-tu*-z amaituriko latineko hitzetan: Bizk. *marti* 'marzo', *-ari* (atzizki emankorra): *ezkutari* 'escudero', *lukurari* 'logrero', *merkatari* 'mercader'.
  - Bizkaia eta mendebalde guztian ohikoa *-a* < *-e* morfologikoki baldintzatua: *arata*, *ahate* < *anate*; *padura* < *padule*.
  - Mailegu zaharretan *-e* mantendu edo gehitu: *amore* 'amor', *dithare* 'dedal'. Ekialdeko lekuzko izenei (*Akhize* < *Aquis*), ez ezik amaierako bokala galdu zuten hizkuntza erromanikoko maileguei ere gehitu zaie: *bahe* 'cedazo' < *\*bane*; *doe* < *\*done*, 'don'.
9. Euskara Zaharrak silaba kateatuak/trabatuak zituen baina ez kontsonante taldez hasitako silabarik:
- Maileguetan:
    - Lehenengo kontsonantea kendu: *lau* < *plano*; *apiriko* 'portico' < *apricu*.
    - Sinkopa baino joera berriagoa batez ere Goi-Nafarroa, Erronkari eta Salazarren (Zubereran ez): latineko azentuaren lekuagatik baldintzatua ez dagoena: *gaminta* 'cuchillo' < *ganibeta*, *kandra* 'vela' < *kandera*.
    - *r*-ren aurrean bokal protetikoa jartzea (-a edo -e): *arrazoi(n)*, *errazoe*. *e-* (eta sekundariamente *i-*, Zub. *u-*) *s-* ren aurretik + kontsonantea. Batzuetan *i*: *n* + *herskari* ondo finkatu gabeko baldintzetan: *aingeru* (-iru, -uru, Erronk. Sal. *aingru*) baina Bizk. *angeru*; *aingira* (Erronk. *aingra*); *aingura*
10. Bokal artean: *lat. ahoskabeak* > *eusk. ahoskabe* (batzuetan hasperendunak) eta *lat. ahostun* > *eusk. ahostun*, frikariak. Honek bere contrapartida lat. *ahoskabe* soil eta *geminatu*



oposaketa alde batera uztean dauka: *cappella* > *kapela*, *kapelu*; *peccatu* > *bekhatu*.  
Hizkuntza erromanikoen babesik gabe euskara pobre geratzen da; izan ere, latinean  
ahoskabe eta geminatuen artean zalantza egon da: *mika*, *phika* 'pega, picaza', *zuku* 'caldó,  
sopa' 'zumo'. Badago adibiderik *lat. geminatu ahostuna* > *eusk. ahoskabe: Sabbatu* >  
mendeb. *zapatu*

11. Lat. herskari ahoskabeak sudurkari eta l-ren ondoren ahostondu baina ahostun/ahoskabe  
oposaketa mantendu r-ren ondoren. Ahostuntzerik ez Erronk. eta Zub.: *denbora* (Erronk.  
*tenpra*) < *tempora*, *boronde* (Erronk., Zub. *boronte*) < *fronte*.  
- *lp* adibideak falta baina *lc* taldean ahostuntzerik ez: *galkhatu* < *calcare*. Paradoxa: Erronk.  
*golgo`seno`* < gr.-lat. *colpu* dago orokorra den *golkho*, *kolko*-ren ondoan.

12. Hitz hasieran lat. herskari ahoskabeak ahostuntzeko joera: *bara* 'pala' (M), *butzu* 'pozo',  
*batheiatu* 'bautizado' < *baptidiare*, *damu* 'pesar, daño' < *damnu*.  
Honek ez du esanahi ez dagoenik ahoskabe hutsez edo ahoskabe hasperendunez hasten den hitzik.  
Banaketa modernoak ez du balio jatorrizko hizkuntzako formak zein diren ikusteko. Aldaera  
horietatik honako ondorio hauek ditugu:  
- Hitz hasieran ahoskabe/ahostun neutralizazioa eman da.  
- Hitz amaieran herskari ahoskabeak soilik (-t, -k) eta txistukari ondoren  
- Dialekto gehienek sudurkari eta l ondorengo bereizketa alde batera utzi dute  
- Ahoskabe/ahostun oposaketa bokal artean eta r+bokal artean soilik mantentzen da erabat.

13. Mailegu zaharrek lat. *c, g* ahoskera aurreko bokalaren aurrean herskaria: *bikhe* 'pez' < *pice*,  
*gela* < *cella*, *kirru* 'cerro, estopilla' < *cirru*.  
- Ez da arraro suertatzen *g* herskaria gorde den lekukotasun asko topatzea:  
- Lexiko kristianoko hitzetan: *aingeru*.  
- Lat. *i*-ren aurretik: *magi(n)a* 'vaina' < *vagina*, *zigilu* < *sigillu*  
- Mailegu zaharrek: /g/-ren erorketa dan fe de la caída de g que en algunos casos se documenta en  
fecha temprana en esa posición: *maiz* 'a menudo' < *magis*, *maizter* 'mayoral' (1167) < *magister*.

14. Ezpainkarien hurrenkeran, euskarak zailtasunak:  
- lat. *f* euskaran sartzekoan  
- eusk. *m*-ren agerpen erratikoak: ezpainkari bakarra izatearen ondorio

15. Euskal dialektoek bi txistukari apikari: *s, ts* eta *z, tz*.  
- Hitz baten barruan mota bereko txistukariak soilik erabiltzeko joera: *intsentsu*, *sasoi(n)*  
'sazón' (Erronk. *zazoi*).  
- Mailegu zaharretan: eusk. *z* ~~lat.~~ *s*-ren ordezkotza: *baradizu/paradisu*; *siñu/zeñu*; (*z*  
duena zaharragoa).

16. Frikari/afrikatu oposizioa: bokal artean eta dialekto batzuetan bokal aurretik ondoren *r*  
dagoenean.  
- Hitz hasieran frikariak: *zimendu* 'cimiento'  
- Sudurkari eta l-ren ondoren: biak orokortu diren arren, gaur egun afrikatuak dialekto  
guztietan edo ia guztietan.  
- Izenetan: amaieran afrikatua: *gorputz* < *corpus*; *laphitz* 'lugar pedregoso' < *lapis*

